

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Kontzejuetako 146 ordezkari hautatu ziren atzo Nafarroako 44 udalerritan egin ziren hauteskundeetan

*Iragan maiatzeko deialdian hautagaitzarik izan ez zuten kontzejuetan hautatu dira ordezkariak*

Lunes, 21 de diciembre de 2015

Kontzejuetako 146 ordezkari hautatu ziren guztira atzo Nafarroako 44 kontzejuetan egin ziren hauteskundeetan, Nafarroako Gobernuak bildutako [behin-behineko emaitzen](#) arabera. Atzo egin ziren hauteskundeak herri horietan, iragan maiatzean ez baitzen aurkeztu hautagaitzarik.

27 udalerritako 44 kontzejuetako 4.385 boto-emailerentzat egin zen bozkatzeko deialdia. 4.794 pertsonak eman zuten botoa, eta horietatik 165ek zuri eman zuten. 72 boto baliogabe ere erregistratu dira.

27 kontzejuetan, kontzeju-batzordeetako lehendakaria eta kideak hautatu dira. Lehendakariak eta lau kidek osaturiko batzorde batek gidatu eta administratuko ditu kontzeju-batzorde horiek.

Hautagaitza bakarra aurkeztu da kasu guztietan. Bi herritan lau pertsonak osatuko dute batzordea, eta beste bitan hiru ordezkariak. Gainera, beste 17 kontzejuetan lehendakaria bakarrik hautatu da, kontzeju irekiak direlako.

Nafarroako Gobernuak hauteskunde partzialerako deia egin zuen iragan urriaren 21ean, hauteskunde orokorrekin bat etorraraziz, aurreko tokiko hauteskundeetan hautagaitzarik aurkeztu ez zuten 30 udalerritako 102 kontzejuetan. Guztira 5.047 biztanle dituzten 11 udalerritako 58 kontzejuetan oraingoan ere ez da aurkeztu hautagaitzarik eta, beraz, ez da egin bozketarik.